



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2010-02-23

VIII. URTEA 1.935. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Aurten hasiko dira eskola handitzen eta urtebetez ariko dira lan horretan

IKAZTEGIETA Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak hartu du bere gain lanen kostu guztia

HAURRAK Geroz eta ikasle gehiago ditu eskolak; aurten 61 dira eta lau talde izatetik bost izatera pasa dira 5



E. MAIZ

JOXE AMIAMA PSIKOPEDAGOGOIA

«Dolua txikitatik landu behar da; galera bat da piruleta nahi duen haurrari ez ematea»

VILLABONA Gaur 18:30ean 'Galera eta Dolua' izeneko hitzaldia eskainiko du tolosarrak udaletxeko balio anitzeko gelan 3



Ludoteka berriak zerbitzu gehiago eskaintzeko aukera ematen du. N. LABURU

Eskaintza bereziak Txontxo ludotekaren lokal berriaren baitan

IBARRA Uzturpe Ikastolak kudeatzen duen zerbitzuak programa berriak abiarazi ditu 6

Musikarekin agurtu dira datorren urtera arte Inauteriak

TOLOSA Piñata Igandea dela eta Musika Eskolakoek The Beatlesen doinuak jo zituzten herenegun 2

Alacanteko ohiko dantzak ikusi ahal izango dira larunbatean 19:00etan

TOLOSA Herriko Udaberri eta Grup de dances d'Ibi taldeak izango dira nagusi Berdura plazan 2



2009an egin zuten Udaberri eta Alacanteko taldeak lehen elkartrukea. HITZA

Bertako eta Alacanteko ohiko dantzak bat eginik larunbatean

Kultura » Udaberri eta Alacanteko Grup de dances d'Ibi ariko dira Berdura plazan, 19:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Bertako eta kanpoko tradizioek bat eginik ikuskizun bereziaz gozatzeko aukera izango da larunbat arratsaldean Tolosan. Hain zuzen ere, Tolosako Udaberri Dantzari Taldea eta Alacanteko Grup de dances d'Ibi izango dira elkarrekin

dantza emanaldia eskainiko dutenak.

Tolosako Dantzari Taldeak gonbidatuta datoz Alacanteko dantzariak, «euren kultura eta dantzak ezagutzera emateko helburuarekin». Ez da Udaberri eta Alacanteko taldeak elkartrukea egiten duten lehen aldia, izan ere, iragan urteko uztailean tolosarrak Alacanten izan ziren «gurea bertan erakusten» eta oraingoan, alderantziz egingo dute.

Dantza emanaldia larunbat arratsaldean izango da, 19:00etatik aurrera, Tolosako Berdura plazan.



Hirugarren emakume eraila aurten

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA » Elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean Triangulon Bilgune Feministak deituta. Protesta ekintza horrekin, ostiralean Lasarten izandako emakume baten aurkako erailketa salatu zuten, *Erasorik ez erantzunik gabe! Emakumeon aurkako indarkeriari aurre egin!* lelopean. Isabel Velez, 48 urteko emakumea, ustez, 23 urteko semeak hil zuen la-

banaz. Ertzaintzak semea atxilo hartu zuen. Isabel Velez da emakumeen aurkako indarkeriagatik aurten hildako hirugarren emakumea. Hamabi egun lehenago Barakaldon (Bizkaia) beste gizon batek ustez ama —Amelia Sanchez, 65 urtekoa— hil zuen. Urtrarrilaren 17an, berriz, Elena Cal hil zuen ustez haren bikotekide ohiak Tolosan. IT.

Inauteriei merezitako agurra



Musika Eskolako 90 ikasle inguru atera ziren kalera, herenegun, Piñata Igandean. SARA GOMEZ / JOXEMI SAIZAR

ERREDAKZIOA

Orain bai, datorren urteko martxoaren 3ra arte agur esan diegula Inauteriei esan daiteke. Askori ahazten zaizen arren, Inauterietako egitarauaren barruan dago Piñata

Igandea, eta behin egun hori igarota isiltzen dira Inauterietako doinuak. Aurten ere, Tolosako Alde Zaharrean nahiz Iurreamendi egoitzan Piñata Igandea zelagogo-rarazi zuten musikariek.

Musika Eskolako ikasleak seigarren urtez atera ziren herenegun, Alde Zaharrean euren doinuak zabaltzera. Helduak nahiz gazteak, 90 ikasle inguru The Beatles taldearen abestiak joz aritu ziren, giro polita sortuz.

Iurreamendi egoitzan ere, Inauteri festa

Gustura hartu zituzten herenegun Iurreamendi egoitzako egoiliarrek ere Inauteri doinuak. Urteroko ohiturari jarraituz, Poca-Tripa txarangakoak arduratu ziren musika jartzeaz, eta Txilaba Elkartearen konpartsakoak, berriz, dantzak eskaini zituzten egoiliarrei. Festa polita sortu zen bertan, egoiliar askorentzat Inauteriak gertutik ikusi eta bizitzeko aukera bakarra horizaten baita. Ondoren, bazkarian bildu ziren denak.

Egunkaria libre!

MILA ESKER !

Erraldioen eta buruhaundien konpartsa, Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi bertsolariak, O+hatz taldea, Udaberri dantza taldea, Konponezinak, Iزارo Saizar eta Elene Arandia, Bonberenea txaranga, Allur dantza taldea, Mulanbo perkusio taldea, Tolosa kantari ekimeneko kideak eta Molatu produkzioak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

JOXE AMIAMA ▶ Psikopedagogoia



E. MAIZ

«Normalean familietan doluaren eta heriotzaren gaia ez da lantzen»

Villabona » Gaur 18:30etik 20:00etara, 'Galera eta Dolua' hitzaldia eskainiko du udaletxeko balio anitzeko gelan. Guztiz irekia da eta inoiz jorratu gabeko gaia izango da.

ENERITZ MAIZ

Joxe Amiama (Tolosa, 1965) Villabonan bizi da eta urteak daramatza bertan guraso eskolak ematen. Aurten ere, Udalaren laguntzarekin lan horretan ari da. Biharko hitzaldian eta hurrengo hiru astetan izango diren hiru saioetan lehen aldiz *Dolua eta Galera: Prozesuaren ulermena eta familian sortzen diren emozioei nola aurre egin gaia* jorratuko du. Gaurko hitzaldia guztiz irekia izango da eta bertan hurrengo hiru saioetarako izena emateko aukera ere izango da.

'Dolua eta Galera' tabua da. Gaia jorratzeko beharra ikusi duzue?

Familietan behin baino gehiagotan sufrimendua ematen da. Dolua eta heriotzaren gaia normalean ez dira lantzen. Tabu gai horietako bat da. Urte asko daramatzat jada guraso eskoletan eta noizbehinka atara da gaia baina oso gutxitan, familiaren batek beharra zeukalako edo. Normalean, diziplina, janaria, autoestimua, jelosia... jorratzen dira. Baina Villabonaren kasuan jada uste dut heldutasun puntu bat bagenuela doluaren gaia lantzeko. Iaz jada adimen emozionalarekin sartu ginen eta jada gai tabu batekin sartu beharra ikusten nuen. Gaia tabua dela badakigu, normalean gai horietaz ez baita hitz egiten. Neurri horretan neronek behartu dut gai hau.

Beraz aurten animatu zarete?

Aurreko urteetan ere planteatu izan da eta garai hartan Arantxa Ugalde zen Fleming Ikastolako zuzendaria eta berak behin baino gehiagotan esan izan zidan heriotzaren gaia aipatzeko. Gai interesgarria zen baina niri gogorra egiten zitzaidan nola planteatu eta, era berean, ibilbide bat egin beharra zegoelako alde batera utzi genuen. Baina azkenean aurten ausartu gara.

Nola planteatu duzu gaia?

Guraso eskola baterako da eta ez da plano kliniko bat izango. Lehenengo irekia izango den hitzaldi moduko bat emango dut eta bertan gakoak diren puntuekin kokatu egingo gara. Gero hiru saioen bidez, guraso eskola formatuarekin,

Haur txikien kasuan sarritan ezkatatu egiten zaie etxean dagoen pena edo sufrimendua

hortaz hitz egitea izango da. Gainera, hiru saio horiek jarraian jar-tzea erabaki genuen, gai delikatu bat da. Urte asko daramatzat jada guraso eskoletan eta noizbehinka atara da gaia baina oso gutxitan, familiaren batek beharra zeukalako edo. Normalean, diziplina, janaria, autoestimua, jelosia... jorratzen dira. Baina Villabonaren kasuan jada uste dut heldutasun puntu bat bagenuela doluaren gaia lantzeko. Iaz jada adimen emozionalarekin sartu ginen eta jada gai tabu batekin sartu beharra ikusten nuen. Gaia tabua dela badakigu, normalean gai horietaz ez baita hitz egiten. Neurri horretan neronek behartu dut gai hau.

ke. Maitasun eza esaterako, harreman bat sortzen da eta momentu batean bukatu egiten da; hor ere dolu bat gauzatzen da. Horri ere aurre egin behar zaio eta egoera horri hitza jarri behar diogu baita emozio eta sentimendu horiei ere. Eta horretaz hitz egin behar dugu. Sarri askotan ematen du ez dela ezer gertatu, eta are gehiago heriotza bat baldin badago. Haur txikien kasuan, sarritan ezkatatu egiten zaie etxean dagoen pena edo sufrimendua. Hori zaindu egin behar da eta aurre egin behar zaio; guraso askori zaila egiten zaie baina bizitza momentu horiek ere hor dau-de eta nola edo hala landu egin behar dira.

Galera mota ezberdinak landuko dituzue orduan?

Posible da galera haur edo nerabe-arena bakarrik izatea, hau da, lagunek ez diote deitzen plan bat egiteko. Hor ere dolu bat sortzen da eta guraso askorentzat mingarria da seme-alabak triste edo oldarkor ikustea. Baina beste galera mota bat familia bertakoa izan daiteke eta hor galera bikoitza da. Alde batetik, nik pertsonalki nola aurre egiten diodan eta bestetik, nola lagundu edo aipatzen dioten puntu hori nire seme edo alabari. Dolua txikitatik landu behar den zerbat

da. Galera bat da piruleta nahi duen haurrari ez ematea. Hiru errekurtsu mota daude. Alde bate-tik, pertsonalak daude, pertsonatik pertsonara ere alde dago eta tendentzia ezberdinak daude baina landu daitezke. Beste errekurtsua eta guraso eskolarako garrantzi-

Lagunek ez badiote deitzen planak egiteko, hori ere galera da eta dolua sortzen da

tsuena, doluetatik zer ikasi dugun izango da. Txikitatik dolu eta galera batzuk izan ditugu eta nola bizitu eta sentitu ditugun eta hortik zer ikasi dugun izango da, eta horri hitza jartzea. Eta hirugarren errekurtsu handia sare sozialak dira, familia, lagunak, bizilagunak...

Zer da garrantzitsua?

Ikasketa garrantzitsua galera mintsua denean da. Eta mintsu da oso atxikimendu polita izan dugulako pertsona horrekin, eta irakurketa hori egin beharkeoa da. Puntu hori oso garrantzitsua eta oinarrikoa da lantzeko. Guztiok behar ditugu atxikimendu eta lotura horiek baina galtzeko arriskua dago eta pertsona guztiok ikasi behar dugu hori.

@ Argazkiak eta bideoak. Hiritako webgunean, inauterietan atara diren argazki eta bideoak ikusgai daude. Bestetik, zuek atara dituzuen argazkiak jaso nahi ditugu eta argazki guztiakin bilduma osatuko dugu. Webgunean izango dituzue ikusgai. Bidali argazkiak tolosaldean@tolosalde-kohitza.info helbidera:

www.tolosaldekohitza.info

L Laburrak

Emakumeen Nazioarteko Eguna antolatzeko bilera

ANOETA » Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, gaur 18:00etatik aurrera udaletxean elkartuko dira. Egun horri lotutako ekitaldiak prestatu ahal izateko izango da eta Udal arduradunek, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte.

Sagaingo irteeran izena emateko aukera bihar arte

ASTEASU » Igandean Sagain Mendi Taldekoak Gourettera eski alpinio irteera antolatu dute. 18 urtetik beherakoek 45 euro eta 18 urtetik gorakoek 52 euro ordaindu behar dituzte. Familia guztiari baina bereziki 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendua dago. Bihar da izena emateko azken eguna eta kiroldegian eman beharko da. Izena ematean 20 euro aurreratu beharko dira. Irteera 05:30ean izango da.

Gurasoentzat euskaraz jolasten ikasteko tailerra antolatu dute

Anoeta » Udalak Herri Eskolarekin elkarlanean antolatu du eta izena emateko aukera zabalik dago.

E. MAIZ

Anoetako Udalak Anoetako Herri Eskolarekin elkarlanean ikastaro bat antolatu du 2 eta 9 urte bitarteko haurren gurasoentzat, beraien haurrekin euskaraz jolasten ikas dezaten. Eskualdeko edozein ikas-tetxetan eskolatutako Anoetako haurren gurasoek har dezakete parte, Anoetan bizi edota erroldatuta baldin badaude.

Anoetako Herri Ikastalari izango da eta martxoaren 15, 16, 17, 22, 23 eta 24ean (aste egunak alda daitezke, sortutako taldeak hala erabakiz gero) eta ordutegia 15:00etatik 17:00etara izango da. Izan ematea jada irekia dago eta martxoaren 10a da azken eguna. Herri Ikastalako idazkaritzan egin beharko da 09:00etatik 13:00etara eta izena ematean 10 euro ordaindu beharko dira.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Taberna-zerbitzaria.** Tolosaldeko taberna batean lan egiteko taberna-zerbitzaria behar da. Ostiral eta larunbatetarako izango litzateke. Deitu 650 04 31 39 telefonora.

■ **Zaintzaile edo garbitzailea.**

Haurrak eta helduak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko emakume eskaintzen da. Interesadunak, 647 29 96 25 telefonora deitu beharko du.

Dominikar Errepublikaren Independentzia Eguna ospatuz

Jaia » Jaia igandean Txanpa Latino tabernan izango da 17:00etatik aurrera eta Soneros de Changüi taldeak joko du.

ERREDAKZIOA

Iaz ere saiakera egin zuten, baina arazo ugari direla medio ezin izan zuten Dominikar Errepublikaren Independentzia Eguna ospatu. Aurtun, ordea, gogotsu hartu zuten egitekoa, «erronka moduan», eta azkenean lortu dute festa txiki bat antolatzea.

Izan ere, larunbatean, hilaren 27an, Dominikar Errepublikaren Independentzia Eguna da, eta herrialde honetatik gurera etorritakoek ere ospatu nahi dute. «Jaz ere saiatu ginen, baina azkenean ez genuen egin. Aurtengoan igandera-ko antolatu dugu festa eta oso pozik gaude», dio Ramona Rodríguez dominikarrak.

Jaia Tolosako Txanpa Latino tabernan egingo dute, «gure txokoa» Rodríguez hitzetan. «Azkenean lortu dugu gure txokoa ere izatea eta oso kontentu gaude. Asteburu batzutan hemengo jende gehiago dago latinoak baino», azaldu du tabernaren inguruan.

«Gure kultura zabaltzeko gogoia dugu»

Une honetan Tolosan 20 bat dira herrialde honetatik etorritakoak, baina «inguruko herrietan ere asko dira», Rodríguez hitzetan, etaberraz, elkartzeko eta euren kultura zabaltzeko gogoia erabudatela



Ramona Rodríguez -hirugarrena ezkerretik- da antolatzaileetako bat. HITZA

dio. Jaia 17:00etan hasiko da eta musika izango da protagonista, musika kubatarra, hain zuzen.

Donostian bizi den kubatar talde batek osatutako Soneros de Changüi taldearen doinuak izango dira nagusi, hortaz, igandean Txanpa Latino tabernan. «Dene-tarik jotzen dute, merengea, batxata, reggaetona... giro ona jarriko dute, seguru», dio Rodríguezek. Musikarekin batera pintxoak ere banatuko dituztela argitu du antolatzaileak.

Era berean, euren jaia ospatuz bizi diren herrira eta gizartera zabaldu nahi direla nabarmendu dute. «Mundu guztia gonbidatzen dugu, elkarrekin egoteko aukera bikaina dugu», gaineratu du.

Horrexegatik antolatu dute jaia horren goiz: «festa arratsaldean goiz samar antolatuta hurrengo

egunean lanera joan behar direnei etortzeko aukera eman nahi diegu. Batzuk goiz jaiki behar dute, beste batzuk tren hartu behar dute etxera itzultzeko... eta guk denak biltzea nahi dugu. Umeak ekarri nahi dituenak ere aukera izango du horrela. Gure asmoa ahal den jende gehiena biltzea da, jai giroan ondo pasatu eta bitartean gure kultura zabaltzea».

1844. urtean aldarrikatu zuten independentzia

1844. urteko otsailaren 27an aldarrikatu zuen independentzia Dominikar Errepublikak. Rodríguezek esandakoaren arabera, bere jaioterrian «mundu guztiak ospatzen du jaia» eta Inauteriak ere ospatzen ari direnez oraintxe guztiak «jai giroan murgilduta» egongo direla dio.

Castillo de Achert eta Chipeta joateko irteera

Aisialdia » Oargi mendi elkarteak antolatu du ibilbidea asteburu honetarako; hilak 26, 27 eta 28.

ERREDAKZIOA

Tolosako Oargi Mendi Elkarteak beste irteera bat antolatu du asteburu honetarako. Hilaren 26an, ostirala, irtengo dira eta igandean itzuliko dira, hilaren 28an. Argitu dutenez, Castillo de Achert eta Chipeta mendietara joango dira.

Ostiralean abiatuko dira Tolosatik eta Siresako Aterpera joango dira. Larunbatean, aldiz, Castillo de Achert igotzeko asmoa dutela jakinarazi dute, 2.384 metro dituen tontorra, hain zuzen ere. 5

ordu inguruko iguera da eta 1.244 metrotako malda dauka. Larunbat gaua ere Siresako aterpean pasako dute. Bukatzeko, igandean, Chipeta igoko dute, 2.175 metro dituen mendia. Honakoa 4 orduko iguera da eta 1.055 metrotako malda du. Joateko asmoa dutenei neguko material arrunta eramateko eskak- era ere egin diete antolatzaileek.

20 euro aurreratu behar dira

Oargiren mendi irteera honetan parte hartu nahi duenak 20 euro aurreratu beharko ditu Euskadiko Kutxaren 3035 0028 11 0281141038 kontuan edo Elkarte- rabetara gerturatuta.

Izena emateko 688 698 642 telefono zenbakiera deitu behar da 19:00etatik aurrera edo info@oargi.org helbide elektronikora idatzi.



Oargi Mendi Elkarteak Alpeetara egindako bidaia. HITZA



harpidedun izateak badu saria

① Otordua

Adunako ZABALA sagardotegian
2 pertsonentzako
otordua



Garagartza baserria
20150 Aduna
Tel.: 943 690 774
www.rzabala.com

② Kirol materiala

Lagun Aro GBC
saskibalo taldearen
baloia eta bufanda



③ Diskoa

Gaztelupeko hotzak
etxeak eskeinia
Bill Lyerly Band- en
"Too Hurt to cry" diskoaren 2 ale



④ Diskoa

Gaztelupeko hotzak
etxeak eskeinia
Travelling Brothers- en
"Red, Hot & Blue" diskoaren 2 ale



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Aurten emango diote hasiera eskola handitzearen proiektuari



Adreilu gorritz dagoen zatia da botako dutena eta bertan, zelaia aldea gehituz, zati berria eraikiko dute besteari lotuta. I. GARCIA

Ikaztegieta » Badira urte batzuk eskola txiki gelditu zaiela eta urtarrilean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak handitze proiektua; gutxienez lanek urtebete iraungo dute.

IMANOL GARCIA

Ikaztegieta Eskolaren handitzea aurten hasiko da. Badira urte batzuk eskaria egin zitzaioela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari eta honek urtarrilean onartu zuen proiektua. Obrari ekin aurretik, baina, bi kontu falta dira. Alde batetik, Foru Aldundiak arau berriak ezarri behar ditu eta bestetik, behin onarpena jasota, Udalak baimena eman behar dio Hezkuntza Sailari obrari ekiteko. Proiektuaren kostu guztia Hezkuntza Sailak hartuko du.

Aldaketa handiak izango ditu eskolak. Zati nagusia, bi solairukoa, zenbait aldatetekin mantenduko da. Egun horren atzean dagoen gehigarria bota egingo da eta alde nagusiarekin bat egingo duen eraikina altxatuko dute, hau ere bi solairukoa.

Zati nagusian egun lau gela daude, beheko solairuan bi eta lehen solairuan beste bi. Aldaketan ondoren, behe solairuko gela bat ira-



Egun 61 ikasle daude ikaztegieta eskolan. I. GARCIA

kasleen gela bihurtuko da eta lehen solairuko biak zertxobait handituko dira. Lehen solairuan ere, bi gela artean laguntzarako gela bat jarriko da.

Atxikita joango zaion eraikin berrian, behe solairuan, jangela egongo da eta sukaldea, komuna, aldagela eta bi gela izango ditu. Bi gela horiek bat eginik psikomotritzitate gela bihurtuko dira. Lehen solairuan, lau gela (horietako bat liburutegia izango dena) eta laguntzarako gela bat egingo dira. Solairu horretan ere komunak izango dira. Esko-

laren handitzeak ekarriko duen beste aldaketa nagusi bat igogailua izango da, ezinduentzako egokietua, egun eskolak ez baitu igogailurik. Eskalera berria egingo dute eta hau alde berriaren erdialdean jarriko dute.

Eskolaren handitzea burutu bitartean, zati nagusia mantendu egingo da. Hori bai, liburutegia, psikomotritzitate gela eta egun irakasleek erabiltzen duten gela galtzen dira. Beraz, leku gehiago beharko dute eskolakoek eguneroko funtzionamendurako. Horretarako

eskolaren ondoan dagoen eraikinean Apezpikutegiak beheko solairuan duen lokala erabiliko dute. Apezpikutegitik lokal hori erabiltzeko baimena eman dio Udalarari, baina erabilpen horrek hartuko duen epea zehaztea eskatu du.

Eskola handitzeko eskaria

Azken urteetan biztanleria asko handitu da Ikaztegieta eta horrek haur kopurua handitzea ekarri du ere. 2007ko irailean modulu aurrefabrikatu bat jarri behar izan zen eskolaren ondoan dagoen zelaian

eta bertan dute bere gela eskolako zaharrenek. Aurtengoa, beraz, hirugarren ikasturtea da modulua erabiltzen dutena.

Eskola handiagoa behar zela eskatzen zuten gurasoek. Aurreko legegaldian zegoen Udalak eskola berri bat egitea aurreikusten zuen, herriaren beste eremu batean. Egungo alkate Eneritz Maizek azaltzen duenez, «Udalean sartu eta gero deialdia egin genien herri-tarrei eskolaren inguruan iritzia jasotzeko. Denetik bazegoen ere, eskolak egungo lekua mantendu behar zuela azaldu zuen gehiengoak. Eskola herrigunean eta leku lasai batean dagoela eta hori mantendu nahi dela azaldu zuten».

Bestalde, Udala eta Hezkuntza Saila proiektuaren inguruan hitz egiten aritu dira. Hezkuntza Sailak egindako ratioen arabera, Ikaztegieta eskolak bost gela baino gehiago ez ditu izango etorkizunean eta horregatik beraien erantzuna izan zen ez zutela ikusten erakin berri bat egitea, egungoa handitzea baizik.

Aurrerago, beste solairu bat eraiki ahaliko da, baina Hezkuntza Sailak ez du aurreikusten hori gertatuko denik. Hezkuntza Sailak egun aurrefabrikatua dagoen lekuan udaletxe berria egingo dela jakin zuenean, eskola handitzearen proiektua bizkortu egin zen. Gutxienez urtebete iraungo dute lanek.

Leku falta

Ana Esnaola eskolako zuzendariak azaltzen duenez, proiektua beharrezkoa da egun «leku arazoa dagoelako. Alde batetik, gela bat modulu aurrefabrikatu batean daukagu. Bestetik, gela bat hainbat erabileratarako dugu: liburutegia, bideo-gela, ingeles eta musika eskolak emateko».

Horrez gain, ez dute irakasle galarik. «Bulego txiki bat dago, baina fotokopiagailua eta ordenagailua ere bertan daude», dio Esnaolak. Ikasleei aparteko laguntzak emateko, obra baten bitartez, gela txiki bat sortu zen. «Baina ez da nahikoa izaten», dio Esnaolak. «Logopeda etortzen denean, PTak ezkaratzara ater behar izaten du. Leku falta handia da».

Eskolaren proiektua gauzatzearakoan, aurrerapauso handia izango da. Egun jangela kiroldegian dago. «Joan-etorria handia da», dio zuzendariak. «Gero eta ikasle gehiago daude jangela zerbitzua erabiltzen dutenak. Horregatik bi txanda egin behar izaten dira. Berrikuntzekin jangela bertan izango zen eta horrek ere arazo konpenduko litzuzke. Joan-etorrian errepede ondotik pasatzen da eta horrek ardura bat gehitzen dio».

Aurtengoa ikasturtean 61 ikasle daude Ikaztegieta eskolan. Azken urteetan gorakada izan da eta lau talde izatek bost talde izatera pasatu dira. Haur Hezkuntzan bi talde daude, 2 eta 3 urtekoena eta 4 eta 5 urtekoena. Lehen Hezkuntzan, ziklo bakoitzarekin talde bana osatzen dute.

NOELIA LATABURU

bai Gain auzotik Azkue auzora lekuz aldatu dute Txontxo ludoteka. Aurreko lokalean gabeziak topatu zituzten Udal arduradunek eta aldatzea erabaki zuten pasa den urtean, beti ere, «herriko haurrei eskaintzen zaien arreta hobetzeko» helburuz. Horretarako 126.075 euro inbertitu ditu Udalak. Hala, lanak egin ondoren eta lokala prestatu ondoren pasa den abendutik hona erabilgarri dago Txontxo ludoteka.

Aurreko lokala «arrisksutsua» zela gogoratu dute bertako langileek, Goizargi Iglesias ibartarrak eta Nerea Zabaleta leitzarrak. Horregatik «gustura» daude lokal berriarekin. Hala ere, oraindik «erabat bukatu» gabe dagoela zehaztu dute, izan ere, «psikomotrizitate txokorako hesia edota antzerki txokorako gortina falta dira», besteak beste.

Ludoteka Uzturpe Ikastolaren esku

Kudeaketa Uzturpe Ikastolaren esku dago egun. Udalak lehiaketara ateratu zuen ludotekaren zerbitzua, lokala aldatzea erabaki zuten. Bi enpresek aurkeztu zuten hautagaitza eta bigarrenean Uzturpe Ikastolarentzat izan zen zerbitzua, 46.000 euroko aurrekontuarekin. Jokin Zugasti Uzturpeko zuzendariak azaldu duenez, «esleipena urtebetekoa da eta hiru urtera zabaldu daiteke».

Azken hamar urteetan ere Uzturperen esku egon zen ludoteka. «Honekin jada sendotutako proiektuari jarraipena eman nahi genion; herri guztiari eta herritar guzteei zuzendutako proiektua da».

Arratsalde egiten dute lan Ibarrrako Txontxo ludotekan. «3 eta 12 urte bitarteko haurrak hartzen ditugu», azaldu du Iglesiasek. Hala ere, nahi baino ume gutxiago dituzte ume honetan. «Lokala primeran dago baina ikasturte hasieratik ez zegoen prest eta guraso askok izena ez ematea erabaki zuten». Arrazoiak arrazoi, ludotekako bi

Pasa den abenduan ireki zituen Ibarrrako Txontxo ludotekak bere lokal berriko ateak, Azkue auzoan; Uzturpe Ikastolak kudeatzen du eta eskaintza bereziak ere zabaldu dituzte gurasoen beharretara egokituta.

Ludoteka, erabilgarri



Inauterietan mozorrotu egin ziren ludotekako haurboak; lokal koloretsua da Azkue auzokoa. HITZA

langileak «oso motibatuta» daude lanerako eta aurki ume gehiago jasotzea espero dute. «Pena da plangintzak aurrera ezin eramatea ume kopuruarengatik».

Eskaintza bereziak

Zerbitzu bereziak ere eskaintzen dituzte Txontxo ludotekan. Egu-berrietan, uztailean Oporrak Euskaraz programarekin edo Aste

Santuetan, esaterako. Pasa den Inauterietan ere haur ugari gozatu ahal izan dute ludotekako zerbitzuaz. «Ume ugari izan genuen; guztiak mozorrotu genituen».

Horretaz gain, gurasoen beharretara hobeto egokituko, hilabete, aste edota eguneko eskaintza ere badute.

Ludotekaren ezaugarriak

Lokal berria haurren beharretara egokitzen da eta jolasteko eta euren aisiarako txokotan banatuta dago. Hala, irakurketa txokoa, antzerkirako txokoa, psikomotrizitate lantzeko txokoa, begiraleen eta eskulanetarako txokoak daude. Altxairu koloretu eta modernoz hornituriko espazioa da, gainera. Ados tokia ere badute haurrek, haserretzen direnako.

Halaber, umeek etxean erabiltzen ez dituzten jostailuak ere eraman dituzte hara. Horma eder bat ere atondu dute sarreran, itsasoaren itxura duena.

Lokalaren ikuspegi zabalak aipatu dute arduradunek abantaila gisa. «Txoko guztiak ikus ditzakegu orain, trabarik ez dago. Berrogei umerentzat dago aurreikusialokala».

Egun bat ludotekan

Plangintza osatua dute Zabaletak eta Iglesiasek «Egunaren eta ume kopuruaren arabera eramaten dugu aurrera gure lana», zehaztu dute. Funtsezkoa «ezartzen dizkiegun arauak betetzea da, gainontzean, nahiko zabal da». Hau da, «ez dute zertanguk proposatutako ekintza egin beharrik, gustura egiten dute gehienetan, hala ere». Umeek ere proposa ditzakete jolasak eta ekintzak eta guztiak betetzen saiatzen dira. «Pedagogia irekiagoa eskaintzen dugu».

Oro har, gurasoak ordu erdiro joan daitezke umeak eramatea edota hartzea. Lehen pausua «kaleko zapatak kendu, etseko zapatilak jantzi eta askaria egitea izaten da». Ondoren ekintzak egiten dituzte. «Joan baino 20 minutu-edo lehenago jostailuak bildu behar dituzte. «Bakoitzari bost jostailu bildu ditzan eskatzen diegu».

Zabaletak azpimarratu duenez, «ekintzak bezain garrantzitsuak dira ohiturak hartzea».



FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN

ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA

902 402 900

Hilberria

ANDRESA IRIGOIEN BALDA

Otsailaren 23an hil zen, 94 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goianbego-

Bere arimaren zuzendaria: Josean Eguzkitza; seme-alabak: Ana Mari eta Jose Mari Jauregi, Martin Joxe, Lurdes eta Joxe Manuel Saizar; bilobak: Oskari eta Antxon Sasiain, Aitzol eta Silvia Morales, Beni, Imanol eta Iratxe Zubeldia; birbiloba: Zohargi Sasiain; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidiak.

Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzetele GAUR arratsaldeko BOST ETARERDIETAN Altxo Auzoko SALBATORREDEJUNAREN elizan gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Ipintza-Txiki

Oharra: Gorpuzte berrira Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egingo da, asteartea arratsaldeko 17:15ak arte.



ALTZO AZPIN
2010eko otsailaren
23a

XABIER AGIRRE ARRATIBEL



Mendian zein elurran zurekin ibili garenok ez zaitugu ahaztuko

Urdaburu Mendizale Taldea

ATAUN-OIARTZUN
2010eko
otsailaren 23a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95

Kirol emaitzak

PILOTA

Binakako Txapelketa Nagusia

LEHEN MAILA

Bengoetxea VI.a-Otxandorena 15

Titin III.a-Pascual 22

Saralegi-Apraiz 16

Gonzalez-Laskurain 22

Euskal Herriko Liga

22 URTEZ AZPIKOAK

Jon Jaunarena 22

Gazteleku 10

KADETEAK

Nazabal-Murua 8

X. Jaunarena-M. Hernandezena 22

PALETA GOMA

Aristorena-Agirre 29

Contin-Aristorena 30

Berria Txapelketa

KADETEAK

Olan-Hernandorena 22

Urkizu-Murgiondo 12

JUBENILAK

X. Jaunarena-J. Jaunarena 19

Santxo-Lizeaga 22

LAGUSIAK

Esain-Iriarte 22

Ojuel-Gorrotxategi 13

FUTBOLA

Nafarroako Erregional Maila

Aurrera Leitza - Infanzones 2-1

SAILKAPENA

1. Lagun Artea (39p.); 2. Ardoi (38p.); 3. Avance (36p.);

11. Aurrera Leitza (24p.)

Erregional Ohorezko Maila

Ildiazabal K.E. - **Tolosa CF** 2-0

SAILKAPENA

1. Pasajes (50 p.); 2. Zarautz (45 p.); 3. Aurrera de Ondarroa (44 p.);

5. Tolosa CF (33p.)

1. Erregionala Igoera Fasea

Amaroz-Lengokoak 1-4

SAILKAPENA

1. Allerru (16p.); 2. Lengokoak (15p.); 3. Kostkas-Miren Bihotza (12p.);

8. Amaroz (4 p.)

Mutrikuarak-Intxurre

3-1

SAILKAPENA

1. Irun (19p.); 2. Oiartzun (14p.); 3.

3. Sto. Tomas Lizeoa (13p.);

6. Intxurre (7 p.)

ARETO FUTBOLA

Nazional A Maila

UPV-Inter - **Lauburu KE** 3-3

SAILKAPENA

1. Zierbana (45p.); 2. Zalatambor

Area 99 (44p.); 3. Elemental Peñucas (40p.);

4. Lauburu KE (40p.)

Nazional B Maila

Trsp. Lakunza-Orioko Tabernak 4-1

Laskorain Ikastola-Aldaz 6-3

SAILKAPENA

1. Laskorain Ikastola (45p.); 2. Ale-ru

Algeposa (39p.); 3. Concepto-Creatch (38p.);

10. Transportes Lakunza (24p.)

SOKATIRA

Euskal Herriko Txapelketa

EMAKUMEZKOAK, 500 KILO

1. Badaiotz (9 tanto); 2. Sakana (6

tanto); 3. Beti Gazte (3 tanto);

4. Ibarra (0 tanto).

SAILKAPEN OROKORRA

1. Badaiotz (12 puntu); 2. Sakana (9

puntu); 3. Beti Gazte (5,5 puntu);

4. Ibarra (3,5 puntu).

AIZKORA

Urrezko Aizkora

FINALERDIAK

Rekondo-Atutxa II.a 24:07"

Olasagasti-Etxebeste 23:31"

Tolosako Laskorainek lider jarraitzen du Nazional B Mailan

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko kirol taldeek ederki asko dakite Inauteri ondoko jardunaldia ez dela sekula samurra izaten; mozorro, txaranga eta kalejiren biharamunak gorputzaldian eragin nabarmena izaten baitu eta lehiaketa erritmoa berreskuratzea neketsua bihurtzen da. Aurtengo Laskorain alabaina oztopo eta traba oro saihesteko gaitasuna ari da erakusten eta joan den larunbatean ere azken jardunaldietan emaitza bikainak pilatzen ari zen Clinica Dental Aldaz 6 eta 3 menperatu zuten, baleko partida batean.

Lasarteko dentistak gogotsu iritsi ziren Usabalera. Denboraldi hastapen eskas baten ondoren, jardunaldiak aurrera joan ahala, bikain egokitu dira maila berrira eta txapelketako oilar txoei kukurrukua erantzuteko gai ere izan dira zenbaitetan, Lasarteko beraien kantxan batez ere. Tolosara ere hone-laxe hurbildu ziren, liderrari susto bat emateko asmo argiarekin eta neurrak hasi eta berehala erdietsitako 0 eta 1-ekoak asmo hau hauspotu besterik ez zuten egin.

Baina horitxoek markagailuan atzetik joanagatik ere ez kokiltzen ikasia dute jadanik, izan ere larunbateko galtzen hasten diren bosgarren partida baita erreskan -zuzendu beharreko datua-, eta beraien joko egiten jarraitu zuten patxada eta konfiantzaz gainezka. Honela, amaieran, markagailuari itzulipurdia emateko gai izan ziren, patxadaz eta konfiantzaz zertxobait badakien *Barack* Telleriaren lau golei esker. Lasartearek amore emanda Inauterietan ez al zen irten galdetu zioten eta Beñat «oso gutxi» esanez trufatu zitzairen, aurpegian irribarreari ezin eutsiz.

Hiru puntu berri hauekin Laskorain ikastolak hamabi jardunaldi osatu ditu porrotik pairatu gabe. Bederatzi jardunaldi daramatza lider bezala. Hala eta guztiz ere, lanean gogor jarraitu behar du oraindik, partida osogorrak ditu eta aurretik.



Lander Otermin, irudian lehen postuan dagoena, Abadiñorekin aritu zen Arrigorriagan iragan larunbatean. HITZA

Lander Otermin txapeldun; Ibarra laugarren postuan

Sokatira » Lander Otermin ibartarrak Abadiñorekin jantzi zuen 560 kiloko pisuan txapela, tiraldi guztiak irabazi ostean.

ERREDAKZIOA

Abadiñok eta Badaiotzek irabazi dituzte goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketan jokoan zeuden azken bi txapelak: 560 eta 500 kilokoak.

Hain zuzen ere, pisu horietako hirugarren jardunaldiak jokatu ziren larunbatean Arrigorriagan (Bizkaia). Saioko txanda eta tiraldi guztiak irabazi zituzten Abadiñok eta Badaiotzek. 160 ikusle gerturatu ziren pilotalekura eta saioak bi ordu iraun zituen.

Gure ordezkarien aldetik, Ibarra azken postuan gelditu zen 500 kilotan. Lander Oterminen ordea, txapela lortu zuen 560koan, Abadiñorekin hartu baitzuen parte.

Lander Otermin

Gizonezkoen 560 kilokoan sei talde aritu ziren lehen: Abadiño (Abadiño, Bizkaia), Amaiur (Amaiur, Nafarroa Garaia), Barrendia (Agurain, Araba), Berriozar (Berriozar, Nafarroa Garaia), Ñapurak (Ezpeleta, Lapurdi) eta Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia).

Aurreko bi jardunaldietan Abadiñok mendean hartu zituen gainerako bost aurkariak, eta larunbatean ere antzekoa gertatu zen. Amaiurren aurka ere, aurkari zuzenena, bi tiraldiak irabazi zituzten bizkaitarrek, saioko 12. txandan.

Hala ere, Abadiñoko zortzikoko azkenaldian baino denbora gehiago behar izan zuen talde nafarra makurrarazteko, batez ere, lehen tiraldian. Izan ere, laugarren minutua bete arte nahiko parean aritu ziren bi taldeak, baina minutu hori betetzean soka-kolpe bortitza eman zuten bizkaitarrek, eta baita tiraldia irabazi ere. Bigarrengoan

errazago bereganatu zuten tiraldia txapeldunek, minutu bat eta 51 segundotan, hain zuzen ere.

Lehen aipatu bezala, Abadiñorekin Lander Otermin ibartarra aritu zen.

Ibarra laugarren

Emakumezkoen 500 kilokoari dago-kionez, lau talde lehiatu ziren Arrigorriagan: Badaiotz (Gasteiz, Araba), Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa Garaia), Ibarra (Ibarra, Gipuzkoa) eta Sakana (Arbizu, Nafarroa).

Abadiñoren antzera, Badaiotzek ere indar handiz irabazi ditu jokaturiko hiru txandak. Sakana sailkatu zen bigarren, Beti Gazte hirugarren eta Ibarra laugarren. Azken postuan gelditu arren, txapelketan parte hartu duten lehen urtea izan dela azzimarratu beharra dago.

560 eta 500 kilokoekin amaitu dira goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketak.

Berria Txapelketa jomugan

Leitza » Hernaniren etxean garaipen garrantzitsua lortu zuten leitzarrek iragan ostiralean, Iñaki Esain eta guzti.

ERREDAKZIOA

Leitzarrei Berria Txapelketa irabaztea sartu zaie buruan eta lortu arte ez dute etsiko. Hernani bezalako herri pilotazale bat nahiko erraz utzi zuten atzean iragan ostiralean, 1-2ko emaitzarekin. Tanta-ak begiratuta berriz, oraindik eta abantaila handiagoa lortu zuten nafarrek: 47-63.

Kadeteek eta nagusiek lortu zituzten garaipena. Jubeniletan,



Berria Txapelketako Leitza taldea Hernanin iragan ostiralean. HITZA

Jaunarena anaiek oraingo honetan galdu egin zuten, hori bai, 19 tanto eginda.

Bitxikeria ordea, Nagusien Mai-

lan dago, Txapelketa honetarako fitxaketa bat eta guzti egin baitute Aurrerakoek: Iñaki Esain profesional ohia.

